



2016 URTARRILA - AUZO BATZARRAK

ASAMBLEAS MUNICIPALES - ENERO 2016

Auzoa Barrio	LANDA GARAPENA/ DESARROLLO RURAL	
Data Fecha Ordua Horario Lekua Lugar	2016-01-21 19:00 – 20:45 LAUDIOKO ERABLERA ANITZEKO GELA SALA MULTIUSOS AYUNTAMIENTO DE LLODIO	
Bertaratuak Asistencia	<p>*Ordezkaritza politikoa representación política</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jon Iñaki Urkixo Orueta. BILDU - Jon Ander Altube Lazkano. BILDU - Amets Meaza Castañares. BILDU - Ander Añibarro Maestre. EAJ/PNV - Jakinda Artaraz Martín. OMNIA - Dolores Muriel Aroca. PSE-EE - Iñigo Pedruzo Abasolo. PP <p>*Udal teknikariak técnicas/os municipales</p> <ul style="list-style-type: none"> - Juan Fernando Etxebarri - Laura Castresana - Jon Ander Gastaka - Joseba Solaun <p>*Idazkaria secretaria/o</p> <ul style="list-style-type: none"> - Izaskun Iturbe <p>*Dinamizatzailea moderador/a</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jon Ander Gastaka <p>*Auzokideak vecinas/os</p> <ul style="list-style-type: none"> -guztira total 13 -neska 5 -mutilak 8 	
Gaien zerrenda Orden del día	<p>1_ Aurkezpena presentación (Natxo)</p> <p>2_ Parte-hartze bidezko aurrekontuak Presupuestos participativos (Amets)</p> <p>3_ Egindakoaren berri ematea Dar cuenta (Jon Ander)</p> <p>4_ Galderak Preguntas</p>	
	Euskaraz	Gaztelaniaz
Edukia Contenido	1_ Batzarra hasteko, Laudioko alkate Jon Iñaki Urkixok instituzioen ordezkari gisa batzarrera bertaratu diren pertsonak aurkeztu ditu eta, jarraian, batzarraren egitura azaldu du: Lehenik eta behin, Gobernu Taldeak udalerraren egungo egoeraren berri emango du eta, ondoren,	1_ Se inicia el acto con una presentación hecha por Jon Iñaki Urkixo, Alcalde de Llodio, de las personas que acuden a la asamblea en representación institucional, explicándose a continuación la estructuración de la misma: primeramente se hará una exposición por parte del Equipo de Gobierno de la situación



txanda emango zaie auzokideei beharrezkotzat jotzen dituzten gaiak azal ditzaten, betiere, batzar honetan jorratzen den eremukoak baldin badira. Gobernu Taldeko kideek eta udal teknikariek planteatutako gaiei erantzuten saiatuko dira. Azalpen horiek egindakoan, Amets Meazari eman dio hitza.

2_ Ogasun eta Ondare Arloko zinegotzi Amets Meazak labur azaldu ditu parte-hartze bidezko aurrekontuak eta esan du abendura arte jaso diren inkestekin lotuta daudela.

Labur definitu du zer den aurrekontua eta azaldu du bi parte dauzkala: Diru-sarrerak eta gastuak. Gastuak bi eratarata sailkatzen dira; arloka eta atalka.

Bereizketa horren helburua da inkestaren egiturari sartzeari, zati orokorra eta zati espezifikoak dituelako. Azken hori beste bi zatitan banatzen da; Laudiori dagozkion kontu espezifikoak eta kasuan kasuko eremukoak, kasu honetan, landa-garapenaren ingurukoak. Inkestan bertan, 2012ko beharren inkestatik eratorritako hiru lehentasunei dagozkien hiru ekintza azaltzen dira.

Bukatzeko, ekarpenak egiteko moduak gogoratu ditu Amets Meazak: Batzarrak, udal webgunea eta urtarrilaren 29ra arte udalerrirako osoan zehar banatu diren postontzietan utzi daitezkeen inkestak.

3_ Obra, Zerbitzu eta Mantentze-lanen nahiz Landa-ingurunearen Arloko zinegotzi Jon Ander Altubek batzarraren gai zerrenda jakinaraziz hasi da:

➤ **Santa Luzia**

Santa Luzian plan berezi bat aplikatzen ari da eta plan horren barruan landetxea pizten hasteko ideia sortu da, haraino gerturatzen den jendeari zerbitzu emateko. Eraikin hori

actual del municipio y posteriormente se dará un turno al vecindario para que exponga las cuestiones que estime oportunas, con relación a las zonas que se tratan en la presente reunión, a las que el Equipo de Gobierno y técnicos municipales intentarán finalmente dar respuesta. Acto seguido pasa la palabra a Amets Meaza.

2_ Amets Meaza, Concejal del Área de Hacienda y patrimonio, hace una breve explicación de los presupuestos participativos que están relacionados con la encuesta que se han recibido hasta diciembre.

Define de manera breve lo que es el presupuesto y explica que está compuesto por dos partes: ingresos y gastos. Los gastos se clasifican de dos maneras, en áreas y capítulos.

El objetivo de hacer esta diferencia es entrar en la estructura de la encuesta que contiene un área global y un área específica. Esta última se divide a su vez en dos partes, cuestiones específicas de Llodio y de la zona que se trate, en este caso, Desarrollo Rural. En la propia encuesta se reflejan tres acciones que son consecuencia de las 3 primeras prioridades que se concluyeron de la encuesta de necesidades que se realizó en 2012.

Para terminar su intervención, Amets Meaza recuerda las vías de hacer aportaciones: las Asambleas, la página web y las encuestas que se pueden dejar hasta el 29 de enero en los buzones repartidos por el municipio.

3_ Jon Ander Altube, Concejal del Área de Obras, Servicios, Mantenimiento y Medio Rural, comienza con el orden del día de la asamblea:

➤ **Santa Lucía**

Se está desarrollando un Plan Especial en Santa Lucía y dentro de este plan ha



katalogatuta dagoenez eta babesa duenez, azterlan bat egin behar izan da apaizaren etxearen estalkiaren birgaikuntza esleitu aurretik.

Azterlanaren arabera, 60.000 euro behar dira horretarako. Aurrekontuan 30.000 euro daude eskuragarri eta, beraz, 2016ko aurrekontuan aldea zuzkitu nahi da. Hortaz, bertan baldintza minimo batzuk bermatzeko eta eraikina berreskuratzeko zer kudeaketa eredu nahi dugun argitzeko lanak oso epe laburrean has litezke.

➤ **Ehiza-barrutia**

Ehiza-barrutiaren aprobetxamendua behin betiko esleitu da. Urteko 3.000 euroko kanona ezarri da 10 urteko eperako. Kiputzeta ehizarako kirol kluba da kudeatzailea. Bereziki azpimarratu nahi izan da barrutiak auzokideei eragindako kalteen ondare-erantzukizuna; sinatutako hitzarmenean ezarri da auzokideen jabetzek jasandako kalteen kasuan erantzulea barrutiaren kudeatzailea izango zela. Horrela, barrutiaren eta bertako auzokideen arteko bizikidetzak hobetu nahi da.

➤ **Trukatzeak**

18 trukatzeko oso aurreratuta eta mahai gainean daude; 8 notariotzan daude, protokolizatzen zain eta gainerakoak Udaletxean oraindik, Tokiko Gobernu Batzordetik igarotzeko zain, ondoren, notariotzara igarotzeko.

➤ **Udal hiltegia**

Aiaraldean lehen sektoreari bizirik irauten laguntzeko, Udala zenbait inbertsio egiten ari da hiltegia, arautegira moldatzeko eta hobekuntzak egiteko. 50.000 euro inbertitu ziren 2015ean eta hiltegiaren aldeko apustua egin zen eta, gaur egun, zonaldeko gainerako hiltegien erreferente da; homologatuta dagoenez eta zerbitzu gehiago ematen dituen, fakturazioa handitu da (550.000 euro urtean).

surgido la idea de empezar a darle vida a la casa cural, para así darle servicio a la gente que se acerque allí. Este edificio está catalogado y tiene una protección, por eso se ha tenido que realizar un estudio adjudicando la rehabilitación de la cubierta de la casa cural.

El estudio dice que son necesarios 60.000 euros para ello, en los presupuestos hay disponibles 30.000 por lo que en el presupuesto del 2016 se quiere habilitar la diferencia. Así, se podrían empezar los trabajos a muy corto plazo para habilitar unas condiciones mínimas de la zona y saber qué modelo de gestión se desea en la recuperación del edificio.

➤ **Coto de caza**

Se ha adjudicado definitivamente el aprovechamiento del coto de caza. Se ha establecido un nuevo canon de 3.000 euros anuales por un periodo de 10 años. El gestor es el club deportivo de caza Kiputzeta. Se ha querido hacer un especial énfasis en la responsabilidad patrimonial de los daños del coto hacia las propiedades de los vecinos, y en el mismo convenio está establecido que los daños que haya en las propiedades de los vecinos sería del gestor del coto. De esta manera se pretende mejorar la convivencia del coto y vecinos de la zona.

➤ **Permutas**

Están sobre la mesa muy avanzadas 18 permutas, 8 en notaría a expensas de que se protocolicen y el resto, todavía en el ayuntamiento, a expensas que pasen por la Junta de Gobierno Local y así pasar a notaría.

➤ **Matadero Municipal**

Para ayudar a la pervivencia del sector primario en Aiara, el Ayuntamiento está haciendo una serie de inversiones en el matadero para adaptarse a normativa y hacer mejoras. Se invirtieron 50.000 euros en el 2015, haciéndose una apuesta por el matadero, siendo a día de hoy referencia para los ganaderos de la zona y



➤ **Landa-bideen asfaltatzea.**

Azken urteotan, zerbait egiten saiatu gara urtero-urtero. Badago esku hartzeko lekuak nahiko ondo identifikatzen dituen beharriaren mapa bat eta, 2016rako Asudio asfaltatzea aurreikusi da.

➤ **Baserritarren azoka hileko 2. zapatuan.**

Duela urtebete baino apur bat gehiago jarri zen martxan hileko 2. zapatuan baserritarren azoka antolatzeko ekimena. Gutxika-gutxika, ideia finkatzen ari da eta, orain, apustua da salgune gehiago izatea eta ahalik eta eskaintza zabalena lortzea. Udalak planteatu duen gauza bakarra da espazioa doan lagatzea eta sustatze-lanak egitea, baina baserritarrek beraiek kudeatzen dute.

➤ **Ikastetxeak**

Batzar guztietan azaldu dira Eusko Jaurlaritzaren deialdia aprobetxatuta Laudioko ikastetxeetan egindako inbertsioak: 2015ean 108.000 euro inbertitu ziren eta 2016rako 160.000 izatea espero da (diru-laguntza eskatuta dago). Ikastetxeekin egindako bileretan antzemandako beharrei lehentasuna ematen saiatzen gara.

➤ **LHUI Eusko Jaurlaritzaren ikastetxeen sare publikoan sartzea.**

Lanbide Heziketako Udal Ikastetxea sare publikoan sartzeko prozesua oso aurreratuta dago; 2013ko lege bat dago oinarrian, hezkuntza-agintaritzari eta Udalari hitzarmena sinatzeko baimena ematen diena. Orain arte, udal ikastetxe publikoa izan da, baina asmoa da ikastetxe publikoen sareko ikastetxe publiko bihurtzea. Horrela, LHUI hobeto kudeatuko da eta hezkuntza-eskaintza ere hobetuko da.

consiguiendo homologarlo y dar más servicios, con la consecuencia de incrementar la facturación (550.000 euros anuales).

➤ **Asfaltado caminos rurales.**

Durante los últimos años se ha procurado hacer algo en este sentido cada año. Hay un mapa de necesidades en el que está bastante bien identificado donde se debe incidir y para el año 2016 se plantea el asfaltado de Asudio.

➤ **Mercado Baserritarras 2º sábado de cada mes.**

Hace poco más de un año que se comenzó con la experiencia de celebrar un mercado de baserritarras el 2º sábado de cada mes, la idea va consolidándose poco a poco y la apuesta ahora es conseguir que haya más puestos y que la oferta sea lo más variada posible. El Ayuntamiento lo único que plantea es ceder el espacio de forma gratuita y fomentarlo, pero son los propios baserritarras los que lo gestionan.

➤ **Centros Educativos**

En todas las asambleas se viene comentando las inversiones realizadas en los centros educativos públicos de Llodio aprovechando una convocatoria del Gobierno Vasco: en el 2015 hubo una inversión de 108.000 euros y para el 2016 se prevé que sean 160.000 (subvención solicitada). Se procura priorizar detectando las necesidades en reuniones con los mismo centros educativos.

➤ **Integración del CMFP en la Red Pública de Centros Educativos del Gobierno Vasco.**

Estamos en un proceso muy avanzado de integración del Centro Municipal de Formación Profesional en la red pública, en base a una ley del 2013 que autoriza a la Administración Educativa y al Ayuntamiento firmar un convenio para ello. Hasta ahora ha sido un centro público municipal pero con esto se pretende que se convierta en un centro



	<p>➤ Enplegu-programak. Enplegu-programen bidez, aldi baterako kontratuak egiten ari dira elkaratekiko hitzarmenen bidez edo Udalak zuzenean kontratatuta, Aiaraldeko kuadrillaren bidez. Oso lege murriztaileak onartu dira horrelako programetarako kontratazioei dagokienez eta horregatik egiten da elkarteen edo kuadrillaren bidez. Gizarteratzea eta lan-munduratzea bultzatzea da asmoa, programen esparruak dibertsifikatzeaz eta iraupen luzeko langabezian dauden pertsonak udal lanetan arituta kualifikatzeaz gain. Hori dela eta, kontratazio publikoetan gizar-te-klausulak sartzen saiatzen ari gara.</p> <p>➤ "Hobetu herria" Webgunean badago erabilgarri "Hobetu zure herria" izeneko mekanismo bat, gorabeherak, iradokizunak, matxurak eta abarrak jakinarazteko balio duena. Horren bidez, abisu xume batekin konpon litezkeen gaien kudeaketa erraztu nahi da. Duela zenbait hilabete, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta gero, telefono mugikorretarako aplikazioak prestatzea ere erabaki zen, baina, bitartean, aukera hori da, ohiko gainerako aukerez gain.</p>	<p>público de la red de centros públicos. De esta manera el CMFP estará en mejores manos en lo que a gestión se refiere, mejor oferta educativa, etc.</p> <p>➤ Programas de Empleo Mediante estos Programas de Trabajo se están realizando contrataciones de personal eventual vía convenio con asociaciones o directamente el Ayuntamiento a través de la Cuadrilla de Ayala. Ha habido una legislación muy restrictiva para la contratación directa para estos programas y por ello se hace a través de asociaciones o la Cuadrilla. Se procura favorecer la inserción socio-laboral, intentar diversificar los ámbitos de los programas, cualificar a parados/as de larga duración haciendo tareas municipales. Por eso, se está intentando incluir cláusulas sociales en dichas contrataciones públicas.</p> <p>➤ "Mejora tu Pueblo" A través de la página web hay disponible ya un mecanismo llamado "Mejora tu Pueblo" mediante el cual se pueden comentar incidencias, sugerencias, averías,... y así agilizar la gestión de aquellas cuestiones que con un simple aviso podrían solucionarse. Hace unos meses, tras un debate plenario, se decidió también preparar otro tipo de aplicaciones para telefonía móvil pero mientras tanto está disponible esta opción además de las habituales.</p>
<p>Galderak Preguntas</p>	<p>➤ Bertaratutako pertsona batek zenbait gai aipatu ditu:</p> <p>➤</p> <ul style="list-style-type: none"> - San Joaneko berdegunetik Larrazabalera doan errepidea: Errepidearen alboak xaflakatuta daude kamioien errodadura marken ondorioz eta ezinezkoa da norberaren autoarekin sartzea. - Bi estolda hondoratu dira eta asfaltoaren 	<p>➤ Un asistente comenta varias cuestiones:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Carretera hacia Larrazabal partiendo de la zona verde de San Juan: los laterales de la carretera están laminados por las rodadas de los camiones y es imposible meterse con el coche propio. - Dos alcantarillas hundidas que pasan por



	<p>azpitik igarotzen dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Areka falta. - Ostenkotik Gaztanitzarako bidean zuloak eta sakanak, ur isuri batengatik izan daiteke. - Bolion, asfaltoa bukatzen den lekuan, belarrak bizpahiru hatz altu da eta ondoren troka dago; baranda edo antzeko zerbait ipintzea eskatzen du. - Larragibeleko eremuan alboetako landareek autoak ukitzen dituzte dagoeneko. Gainera, alanbre-hesi bat jausita dago. Zonalde horretan bertan, bidera ateratzen den sahas bat. <p>Jon Ander Altubek erantzun du badagoela bide guztien zerranda bat eta egoera ere jasotzen duela. Egoeraren arabera eta eskura dagoen diruaren arabera, lehentasunak ezartzen dira. Hala ere, badaude arazo barik egin daitezkeen zenbait gai, inbertsioak baino, konponbide diren zenbait gai, esaterako, baranda ipintzearena.</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Batzarrera joandako beste pertsona batek galdetu du zergatik kontratatzen den beti neguan enplegu-programetako jendea, udan errendimendu handiagoa atera ahalko litzatekeelako. <p>Jon Ander Altubek erantzun du deialdiak ekainean atera ohi direla eta aplikatzen hasten direnerako iraila-urria izaten dela. Udalari diru-laguntza bat ematen zaio eta data ez dago Udalaren esku.</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Batzarrera gerturatutako beste pertsona batek itxitako bideak aipatu ditu: pertsona batek betiko zenbait bide eta bide-zor itxi ditu lurra erosi eta gero. Esan duenez, betidanik erabili izan den bide bat da eta irekita egon behar du nahi duen edonor handik 	<p>debajo del asfalto.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Falta de cunetas. - Ostenko hacia Gaztanitza baches y hundimiento, pude que por una fuga de agua. - En Bolio donde termina el asfalto hay ahora 2-3 dedos de hierba y luego barranco, solicita un quitamiedos o algo similar. - Hacia la zona de Larragibel la vegetación lateral roza ya los coches. Hay una alambrada caída también. Por la misma zona hay un sauce salido en el camino. <p>Jon Ander Altube responde que hay un listado de todos los caminos y de su estado. En base al estado se prioriza para cada año actuar dependiendo de la disponibilidad presupuestaria. Aun así, hay cuestiones que lejos de ser inversiones son soluciones que se pueden realizar sin problema alguno, como por ejemplo colocar el quitamiedos.</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Otro de los asistentes a la asamblea pregunta por qué el personal contratado en los programas de empleo se contrata siempre en invierno y no en verano que se les podría sacar más rendimiento. <p>Jon Ander Altube responde a esta cuestión comentando que las convocatorias suelen salir en el mes de junio y para cuando se empiezan a aplicar ya es septiembre-octubre. Al Ayuntamiento se le concede una subvención y la fecha no depende del mismo.</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Otra de las personas de la asamblea hace referencia a los caminos cerrados: caminos y servidumbres de toda la vida que un usuario privado al comprar el terreno los ha cerrado por decisión propia. Comenta que es un camino de toda la vida y debe quedar abierto para
--	--	--



igaro dadin.

Jon Ander Gastaka, Laudio Udaleko Mendietako ofizialak azaldu duenez, aipatu den eremuan hesi bat jarri da, baina ardiak ez pasatzeko baino ez da, ez dago igarotzeko arazorik. Hala ere, bere ustez, handik ez da ia inor igarotzen, errepide berria egin zenean, bide horrek erabilgarritasuna galdu zuelako eta ez duelako zentzurik. Esan du ez dagoela biderik, ezta itxitako bide-zorrik ere. Halaber, esan du bide-zorrak ez direla beti publikoak.

Jon Ander Altubek erantsi du benetan bide publiko bat bada eta partikular bat bereganatu badu horretarako eskubiderik izan gabe, lehenik frogatu egin beharko dela eta ondoren neurriak hartuko liratekeela. Beste aukera bat da jabetza pribatua izan arren bide-zor publikoa izatea edo bide-zor publikoa izatea.

Gatazka zehatz bat dela ikusi denez, eragindako alderdiekin bilera egitea erabaki da, arazoari konponbidea bilatzeko.

- Laudioko beste auzokide batek galdetu du zertan den bide publikoen inbentarioa eta esan du garrantzitsua litzatekeela onartzea.

Jon Ander Altubek erantzun dio trukatzekak bukatzeko zain daudela gai horri heltzeko.

- Auzokide berak erantzun dio trukatzekak iaz zeuden leku berean daudela eta iradoki du landa-garapenaren arloari aholkularitza ematen dion enpresak har dezala gaiaren ardura. Halaber, galdetu egin

todo aquel que quiera pasar por allí.

Jon Ander Gastaka, Oficial de Montes del Ayuntamiento de Llodio explica que en la zona que se trata hay una barrera situada simplemente para que no se escapen las ovejas, pero se puede pasar sin problema alguno. Aun así, considera que por esa zona apenas pasa casi nadie, ya que al hacerse la carretera nueva ese camino pierde toda su utilidad y carece de sentido. Comenta que no hay ningún camino ni servidumbre cerrada. También comenta que una servidumbre no siempre es pública.

Jon Ander Altube añade que, si verdaderamente es un camino público y un particular se lo ha apropiado sin tener derecho a ello, primero habrá que intentar demostrarlo y entonces se tomarán medidas. Otra opción es que sea una servidumbre de paso pública siendo propiedad privada o que sea una servidumbre pública.

Ya que se ve que este es un conflicto concreto, se acuerda reunirse con las partes afectadas para llegar a una solución sobre el tema.

- Otro vecino de Llodio pregunta en qué situación está el inventario de caminos públicos y dice que sería importante aprobarlo.

Jon Ander Altube responde que se está esperando a terminar un poco con las permutas para comenzar con este tema.

- El mismo vecino responde que las permutas siguen en el mismo sitio que el año pasado y sugiere que se le pase este tema a la empresa que asesora al área de desarrollo rural. Así mismo, pregunta si hay partida presupuestaria para que se pueda pagar a la notaría y a ver qué falta para que avance el inventario.



du aurrekontuan partidarik jaso ote den notariotzari ordaintzeko eta zer behar den inbentarioak aurrera egiteko.

Laudioko alkate Jon Iñaki Urkixok erantzun dio trukatzeko guztiak Osoko Bilkuran onartu direla eta notariotzari ordaintzeko daudenak Udalaren esku ez dauden arrazoiengatik daudela geldi. Horiek ordaintzea ez dagokio % 100ean Udalarieta ez da arazorik egongo horiek ordaintzeko, administrazio-gastuak direlako. Bidean inbentarioa teknikarien esku dago.

- Argiteria: Batzarrera bertaratutako pertsona batek esan du Goienuriko bidean, argiak Arbideraino baino ez direla iristen eta Garaten kale-argi bakarra dagoela. Beste auzokide batek gauza bera esan du Lusurbeilandari buruz; badirudi argiteria ikastolan bukatzen dela eta galdetu du ea posible den gutxienez farola bat ipintzea baserri bakoitzean. Iradoki du Aiaran bezala egitea, alegia, kale-argiaren argi-gastua OHZtik kentzea.

Obra, Zerbitzu eta Mantentze-lanen nahiz Landa-ingurunearen Arloko buru Juan Fernando Etxebarri erantzun dio gai honi dagokionez aplikatzen den irizpidea dela mendi osoa ez argizatzea. Kale-argiak baserrietako argindarrera konektatuta jartzen dira etxe multzo isolatuetan eta jabearekin ados jartzen gara kale-argia baserriko argindarrera konektatuta izateko, koadroa jartzea oso garestia delako. Berrito esan du mendialde osoan argiak jarriko balira, landa-lurra izatetik hiri-lurra izatera igaroko zela.

Halaber, adierazi du eremuaren araberakoak direla zerbitzuak; ezin dira hirigunean dauden zerbitzu berak izan. Gainera zer argiztatu eta zer ez erabakitzea oso kontu subjektiboa da, askotariko iritziak daudelako. Azkenean, mendian hiriko zerbitzuak ipintzen baditugu, hirigune bihurtuko dugu.

Jon Iñaki Urkixo, Alcalde de Llodio responde que todas las permutas han pasado por Pleno y las que están en notaria paralizadas son por razones ajenas al Ayuntamiento. El pago de las mismas no corresponde 100% al Ayuntamiento y no habrá ningún problema para el pago ya que son gastos administrativos. El tema del inventario de caminos está en manos de los técnicos.

- Alumbrado: Una asistente a la asamblea comenta que en el camino Goienuri el alumbrado sólo llega hasta Arbide y que en Garate sólo hay una farola. Otro vecino comenta lo mismo sobre Lusurbeilanda, comenta que parece que el alumbrado terminara en la Ikastola y pregunta si no es posible poner al menos una farola en caca caserío. Se sugiere que se haga como en Ayala y que se bonifique en el IBI el consumo de luz del gasto de la farola.

Juan Fernando Etxebarri, Responsable del Área de Obras, Servicios, Mantenimiento y Medio Rural, responde que el criterio que se toma en este sentido es el de no alumbrar todo el monte. Se ponen farolas en núcleos aislados, conectando la misma al alumbrado del caserío, se llega a un arreglo con el su dueño del caserío conectando a su conexión eléctrica la farola, ya que poner un cuadro es muy costoso de mantener. Reitera que si se habilita alumbrado en todo el monte pasaría de ser suelo no urbano a suelo urbano.

También comenta que dependiendo de la zona el nivel de servicios no puede ser el mismo que en la zona urbana y que el tema de qué alumbrar y qué no es algo muy relativo y con opiniones variadas. Al final si dotamos el monte de servicios urbanos lo convertimos en zona urbana.

- Un asistente pregunta por los Consorcios Forestales. Todos los que están en vigor



- Bertaratutako batek Baso Partzuergoen inguruko galdera egin du. Indarrean dauden guztiak epez kanpo daude (50 urtetik gora daramate) eta AFAk esan duenez, ez da zuhaitz gehiago moztetik onartuko. Udalak basoberritzeak egiteko dirua ipintzen ez duen arte. Hortaz, galdetu egin du aurten diru-partidarik ote dagoen basoberritzeekin hasteko eta Aldundiak 2016ko espedienteetan sartzeko.

Jon Ander Altubek erantzun du 2015eko aurrekontuan jasotako zenbatekoa ez zela nahikoa izan, baina hitzartuta dagoela 2015eko aurrekontua likidatu ondoren, otsailetik aurrera dagoeneko badagoen partida bati falta den dirua gehituko zaiola (50.000 euro) eta Osoko Bilkurak erabakitzen badu (otsailean egiteko asmoa dago) Partzuergoekin jarraitu ahal izango dela. Aldundiarekin izandako bileran bi urteren buruan egingo zela erabaki zen.

- Bertaratutako batek baserri-auzoetako saneamenduen inguruko informazioa eskatu du eta galdetu du posible izango ote zen hobi handi bat egitea Aiaran egin den bezala.

Alkateak erantzun dio Laudion ez dagoela aukera hori eta Aiaran Aldundiak diru-laguntza zuzenak eman dizkiela Administrazio Batzarrei; ezin da Aiarako finantzazio-sistema Laudiokoarekin alderatu.

Obra, Zerbitzu eta Mantentze-lanen nahiz Landa-ingurunearen Arloko buru Juan Fernando Etxebarri argi utzi du ez direla landa-ingurunea abandonatzen ari, baina errepikatu egin du landa-eremuak hiriguneko zerbitzuz hornitzen baditugu, hirigune bihurtuko direla, horrek dakarrenarekin.

- Auzokide batek esan du ikastolako aparkalekua ez dela nahikoa hara igotzen diren auto guztietarako. Iradoki

han vencido su fecha (llevan más de 50 años) y de la DFA le dicen que no se van a permitir más talas mientras que el Ayuntamiento no adapte el compromiso monetario de efectuar las repoblaciones. Por lo que pregunta si este año hay partida para comenzar con ellas para que la Diputación lo meta en el expediente del 2016.

Jon Ander Altube responde que en el presupuesto del 2015 se hizo una previsión que no fue suficiente pero ya está hablado que a partir de febrero, una vez que se liquide el ejercicio 2015, se dotará la diferencia en una partida que ya tenemos (con 50.000 euros) y con un acuerdo del Pleno (intención en el de febrero) se podría seguir adelante con los Consorcios. En la reunión con la Diputación se acordó que se haría en un par de años.

- Una asistente pregunta por los saneamientos en los barrios rurales y se comenta si se podría contemplar lo que costaría hacer una fosa grande igual que se ha hecho en Ayala.

El Alcalde le responde que en Llodio no existe esa posibilidad y que en Ayala Diputación ha subvencionado directamente a las Juntas Administrativas, no se puede comparar el sistema de financiación de Ayala con el de Llodio.

El Responsable del Área de Obras, Servicios, Mantenimiento y Medio Rural, Juan Fernando Etxebarri, deja claro que no se está abandonando el medio rural, pero repite que si dotamos a la zona rústica con servicios urbanos pasaría a ser zona urbana, con todo lo que ello supone.

- Un vecino dice que el aparcamiento de la Ikastola es insuficiente para todos los coches que suben. Sugiere hacer otro aparcamiento para unos 20 coches en la zona del solar de los pisos nuevos que se iban a edificar. Ya que la gente aparca a



	<p>egin du beste 20 auto hartzeko moduko aparkaleku bat egin litekeela egin behar ziren etxebizitza berrien orubean. Izan ere, jendeak errepidearen bi alboetan aparkatzen du.</p> <p>Jon Ander Altubek erantzun dio aparkatzeko leku gehiago jarrita lortzen den gauza bakarra dela trafiko gehiago eragitea eta sustatu beharko litzatekeena dela autoa gutxiago erabiltzea, arazo pertsonalengatik edo lan kontuengatik beste erremediorik ez dagoen kasuetan izan ezik.</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Batzarrera joandako pertsonetako batek galdetu du ba ote dagoen itxitura partikularren eta landa-bideen arteko distantzia ezartzen duen araudiren bat. <p>Oro har erantzun dute uste dutela ezetz; uste dutela badagoela Aldundiaren araudi bat errepideei buruz, baina ez daude ziur bideetarako ere aplika ote daitekeen. Hala ere begiratuko dutela.</p>	<p>ambos lados de la carretera.</p> <p>Jon Ander Altube responde que el hacer más plazas de aparcamiento lo que genera es que haya más tráfico, y que lo que habría que fomentar es que no se lleve coche a no ser que la persona no tenga más remedio por temas personales, laborales, etc.</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Una de las personas que asiste a la asamblea pregunta si existe alguna normativa referente a la distancia que debe haber entre los cierres particulares y los caminos rurales. <p>Responden en general que creen que no; creen que hay normativa de la Diputación en lo que a carreteras se refiere pero no están seguros si es aplicable a los caminos, pero que se mirará.</p>
--	---	---